



CARITASEN ERAKUNDE EKIMENA – 2022 EGUBERRIA

Liturgia gida. Abenduaren 4. Igandea (2022.12.18)

Sarrera

Ongi etorri ospakizun honetara. Astebete geratzen zaigu Eguberrietarako. Egun horietan berritzen dugu Jesusen jaiotza Belenen, eta pozik eta itxaropenez hartzen dugu. Asko espero dugu Eguberri guztietan. Gu Jesusez betetzeko aukera da, bai eta Haren bidez gure bizitza fedez, itxaropenez eta karitatez betetzeko aukera ere.

Hau galde diezaiokegu geure buruari: zer espero ote dute gugandik, jai hauetan, egoera latzean, bakardadean, abandonaturik edo mehatxupear bizi direnek? Eguberrietan erakutsi dezakegu zer den Jesus hartzea: bizitza eta pertsonak hartzea da, eta denei Jainkoaren begirada berarekin begiratzea. Horrela, Jesus Belenen jaioko da, bai eta gure baitan ere. Berari esker, badakigu ***maitasunak bakarrik argitzen duela dena.***

Gaur, Caritasek gogorarazten digu non ikusi eta hartu behar dugun Jesus: alegia, pertsona xumeen, behartsuen... eta bizitzan zailtasunak dituzten guztien aurpegian, bizitzan eta zailtasunetan. ***Karitateak argitu egiten ditu bai jasotzen duenaren eta bai ematen duenaren bizitza eta bidea.***

Penitentzia-ekintza

Jesusen jaiotzaren hurbiltasunak Berarengana hurbiltzera eta Bere antza izatera bultzatzen gaitu; horretarako, bere grazia eta barkamena behar ditugu.

- Jauna, batzuetan ez dugu asmatzen gure anai-arreba behartsuengan zu ikusten.
ERRUKI, JAUNA.
- Jesu Kristo, batzuetan beste euskarri eta segurtasun batzuk nahiago izaten ditugulako, eskuzabaltasuna eta karitatea ahaztuta.
KRISTO, ERRUKI.
- Jauna, askotan zuk Zeuk konpontzea nahi izaten dugu guri dagokiguna.
ERRUKI, JAUNA.

Irakurgaiak

1. irakurgaiak. Is 7, 10-14: Akaz erregeak nahiago ditu itunak eta akordioak, Jainkoaren seinaleez fidatu baino. Erregeak jarrera hori izan arren, Jainkoak iragarri du bere Semearen bidez etorriko dela. Jesus jaioko da, guk Jainkoaren presentzia hauteman dezagun, seinaleetatik eta zeinuetatik harago.

2. irakurgaiak. Erm 1, 1-7: Paulok aitortzen du Jainkoaren presentzia salbatzailea dela Jesus. Amaitu da Jainkoak seinaleak eta zeinuak bidaltzen zituen garaia. Jesus Jainkoa bera da, orain Mariarengandik sortua gure artean agertzen zaiguna.



Ebangelioa Mt 1, 18-24: Zalantzak izan arren, Jainkoaren nahia onartu eta bete egiten du Josek. Ez du ondo ulertzen zer ari den gertatzen. Hala ere, konfiantza du Jainkoarengan eta Mariarengan, eta aurrera jarraitzen du. Ez da aktore pasiboa. Protagonista diskretua da, gizon ona, eta imitatu beharreko eredu.

Fededunen otoitza

Abendualdiko azken aste honetan, Eguberriak egiaz nola bizi behar ditugun erakusteko eskatzen diogu Jainkoari. Horrela ospatu nahi dugu, eta horrelaxe eskatzen diogu gaur:

- Elizaren eta haren komunitateen alde, mundu honetan Jainkoaren presentzia errukitsua izan gaitezen, batez ere txikieneztat eta behartsuenentzat.
ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Orain, Eguberrien atarian, jende askok jarraitzen du indarkeria, gerra, jazarpena, abusua eta bazterkeria bizitzen, beren zorigaitzean babeslekurik eta babesik gabe; horien alde, duintasunez eta elkartasunez hartuak eta tratatuak izan daitezten.
ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Eguberri hauetan, Jesusek, ume eginda, erruki-, bake-, justizia- eta anaitasun-sentimendu emankorrak piztu ditzan gudan.
ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Ospakizun hauen lasaitasunak eta pozak eraginda, gure familiak eta komunitateak anaitasunezkoak, eskuzabalak eta karitatezkoak izan daitezten.
ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Gure laguntzarekin, Caritasek prekarietateak eta pobreziak, penak eta samintasunak artatu eta konpondu ahal izan ditzan, eta pertsoneri bazterkeriatik, bakardadetik eta bidegabekeriatik ateratzen lagundu ahal izan diezaie.
ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.

Aita, eskatzen dizugu Eguberri hauetan Zuri eta gure anai-arreba behartsuenei emanda bizi ahal izan dezagula Jesusen jaiotza. J.K.G.J.

Azken agurra

Kristau-elkartearen anaitasun eta karitatezko ekintza da Caritas. Batzuek besteen alde jarduteak eta eskuzabaltasun materialak irtenbidea eta konponbidea ematen diete beste batzuen beharrei. Truke emankor eta anaikorra da hori, Aitak bere seme-alaba guztien eskura jarritako mahaia ondo zaintzen dutenen artekoa, Jainkoaren seme-alabak direla badakiteneen artekoa.<0}

Egun hauetan, garai berrien amets ebanjelikoa errealitate bihur dezagula, eta, jaioberriaren inguruan, ugari izan daitezela elkartasuna, justizia, anaitasuna eta karitate ebanjelikoa.<0}

Eskerrik asko! Eguberri on!